



GOMENDIOAK KATARATAREN KIRURGIA EGIN ONDORAKO

TANTAK APLIKATZEA: HASI TRATAMENDUA ETXERA HELTZERAKOAN

Garbitu eskuak jarri aurretik. Okertu burua atzera, jaitsi beheko betazala eta bota TANTA bat, begia ukitu gabe:

1. Lehenengo astean TOBRADEX® ETA DIKLOFENAKO KOLIRIOA, tanta bat, lau aldiz egunean (lo-orduak errespetatuta eta haien artean bost minutuko tarteaz utzita).
2. Bigarren, hirugarren eta laugarren asteetan, DIKLOFENAKO KOLIRIOA BAKARRIK, tanta bat lau aldiz egunean (lo-orduak errespetatuta).

LEHEN ASTEAN:

- Ez egin mugimendu zakarririk buruarekin.
- Etzatean, ez jarri operatutako aldearen gainean; etzan beste aldearen gainean, edo egin lo ahoz gora.
- Ez egin ahalegin fisikorik, ez altxa zamarik. Lehenengo egunetan, komeni da zuntzetan aberatsak diren elikagaiak hartzea, sabel-hustean ahaleginik ez egiteko.
- Ez ukitu eta ez igurtzi ebakuntza egindako begia.
- Ez makurtu burua (makurtu egiten gara galtzerdiak janztean, zapatak jartzean, lurretik zerbait hartzean, ohea egitean...).

LEHEN HILABETEAN:

- Ez gidatu ibilgailurik.
- Saiatu animaliarik ez ukitzen eta landako lanik ez egiten.
- Ibili kerik eta hautsik gabeko giroetan.
- Ez bainatu igerilekuan eta itsasoan.
- Ez makillatu begiak.
- Baldin eta honako sintoma hauetakoren bat nabaritzen baduzu, 8etatik 15:00etara arteko ordutegian Oftalmologiako kontsultako harrerara joan beharko zara, eta Santiagoko larrialdi orokorretara, berriz, ordutegi horretatik kanpo:
 - Min handia sumatzen duzu, kirurgiaren ondoko 24-48 orduetan ez bezala.
 - Ikusmena bat-batean gutxitu zaizu.
 - Begietan jariakin ugariak edo horixkak, malkarrak.

GOMENDIO OROKORRAK

- Irakur dezakezu, edo telebista ikusi, nekatu gabe.
- Erabil ditzakezu zure betaurrekoak, bai urrunekoak bai hurbilekoak. Operatutako begiaren kristalak traba egiten badizu, alda dezakezu graduaziorik gabeko beste batekin. Normalena da hurbileko betaurrekoak behar izatea operazioaren ondoren.
- Erabil ditzakezu eguzkitakoak, beharrezkoa iruditzen bazaizu.
- Eutsi lehengo dieta eta medikazio berari.